

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zaila da gure bezeroa zein izango den definitzea. Gure bezeroak bitan klasifikatuko ditugu: Udaletxea eta Herritarrak. Hasteko, haien herrian festa edo ekintzaren bat antolatu nahi duten udaletxeei zuzenduta dago gure zerbitzua. Baina udaletxeak ez du gure zerbitzua kontsumituko, herriak baizik. Gure lana da herria aztertu ondoren ondorioak ateratzea eta denok pozik egongo diren ekintza/festa bat antolatzea.

Herri mailako ekintzak antolatzen ditugunez mota guztietako herritarrei zuzenduta egongo da zerbitzua. Hasteko, 2-3 urte tarteko umeak daude. Beraz, hauentzat pailazo aktuzio bat edo antzerki bat egin dezakegu.

Bestalde, DBH edo Batxilergoko mailan ikasten duten gazteak daude eta hauentzat kontzertuak, txapelketak, etab. antolatuko ditugu.

Gainera gurasoak daude. Hauentzat kontzertuak, sagardo dastaketa, etab. antolatu ditzakegu.

Amaitzeko, adinekoak ere badaude. Hauentzat berbenak etab. antolatu ditzakegu. Gurasoentzako ekintzak ere erabili ditzakete.

Esandako talde guztietaz aparte, herriko festetaz gozatu nahi duen edozein pertsona parte hartu dezake guk antolatutako ekintzetan.

Bezeroen atentzioa deitzeko, mota askotako publikazioak egingo ditugu gure sare sozialetan. Bertan ere, artistei buruzko inkestak egingo ditugu herritarrak gustuko dituzten ezaugarriak aztertzeko. Hau guztia aztertzean, orduan, ekintza/festa egokia antolatuko genuke.